

HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO PROTOKOLOA

Hondarribia Futbol Elkartea



AURKIBIDEA:

SARRERA.	2
ESPARRU JURIDIKOA.	3
HELBURUAK ETA PRINTZIPIOAK.	5
DEFINIZIOAK.	6
PREBENTZIO NEURRIAK.	9
Babes ordezkaria	9
Haurren Babes Batzordea	10
Langileak eta boluntarioak kontratatzea	10
Jokabide kodeak	11
Espazioen erabilera	11
Epaileak	12
Bidaiak	14
Sare sozialak eta adingabeekiko komunikazioak	14
Arriskuen analisia	15
Prestakuntza	16
JARDUKETAK ETA KASUAK EBAZTEA.	16
POLITIKEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.	17

AURKIBIDEA:

SARRERA.	2
ESPARRU JURIDIKOA.	3
HELBURUAK ETA PRINTZIPIOAK.	5
DEFINIZIOAK.	6
PREBENTZIO NEURRIAK.	9
Babes ordezkaria	9
Haurren Babes Batzordea	10
Langileak eta boluntarioak kontratatzea	10
Jokabide kodeak	11
Espazioen erabilera	11
Epaileak	12
Bidaiak	14
Sare sozialak eta adingabeekiko komunikazioak	14
Arriskuen analisia	15
Prestakuntza	16
JARDUKETAK ETA KASUAK EBAZTEA.	16
POLITIKEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.	17

SARRERA.

Kirola funtsezko arloa da adingabeen garapen integralerako. Kontuan hartuta kirola dela haurrek denbora gehien ematen duten hirugarren arloa, nahitaez baloratu behar da zein garrantzitsua den kirola haurrak babestuta egoteko eremu gisa.

Kirola egiteak onura ugari ekartzen ditu; baina badira haien garapenean, eskubideetan eta ongizatean eragin negatiboa izan dezaketen hainbat arrisku ere. Kiroleko indarkeria errealitate bat da baina, tamalez, indarkeria horren adierazpen gehienak ikusezinak dira.

Hondarribia Futbol Elkarteak (aurrerantzean, HONDARRIBIA F.E. edo HFE) haurrak babestearekin eta tratu ona ematearekin duen konpromiso etiko eta legala erakusten du protokolo honek.

Haurren aurkako indarkeria prebenitzea eta babestea guztion zeregina da. Honako hauek dira protokolo honen helburuak: kirol jardueran parte hartzen duten eragile guztien artean kontzientzia sortzea, espazio seguruak sortzea eta, adingabeek futbolaz gozatzeko jarduera eremuan erabiltzen diren babes neurriak ezagutzera ematea.

ESPARRU JURIDIKOA.

Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzko 2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa (aurrerantzean HNIBLO) onartzeak aurrerapen handia ekarri du arlo horretan.

HNIBLOk xedatzen du

"47. artikulua Kirolaren eta aisialdiaren esparruan indarkeriaren aurka jarduteko protokoloak.

Herri administrazioek, beren eskumenen esparruan, kirol eta aisialdi esparruan ingurune seguru bat eraikitzeke jarduketak bilduko dituzten jarduera protokoloak arautuko dituzte. Jarduera horiek kirol eta aisialdi esparruan haur eta nerabeen aurkako indarkeria egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta egoera horietan esku hartzeko jarraitu behar dira.

Protokolo horiek kirol eta aisialdi jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu beharko dira, titulartasuna edozein dela ere eta, edozein kasutan, Errendimendu Handiko eta Kirol Teknikazioko Zentroen Sarean, Kirol Federazioetan eta Udal Eskoletan.

48. artikulua. Adingabeekin kirol edo aisialdi jarduerak egin ohi dituzten erakundeak.

1. Adingabeekin kirol edo aisialdi jarduerak egin ohi dituzten erakundeak behartuta daude:

a) Administrazio publikoek kirolaren eta aisialdiaren esparruan hartzen dituzten aurreko artikuluan aipatutako jarduera protokoloak aplikatzera.

b) Monitorizazio sistema bat ezartzera, adingabeen babesari buruzko aurreko protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.

c) Adingabeen kezkak jasotzeaz, ezarritako protokoloak hedatzeaz eta betetzeaz eta haurren edo nerabeen aurkako indarkeria egoera detektatu den kasuetan dagozkion jakinarazpenak egiteaz arduratuko den babes ordezkaria izendatzera.

d) Behar diren neurriak hartzera, kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia praktikatzea adinagatik, arrazagatik, desgaitasunagatik, sexu orientazioagatik, sexu identitateagatik, genero adierazpenagatik, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminatzeko agertoki bihur ez dadin; horretarako, hurrekin eta nerabeekin lan egingo da, bai eta haien familia eta profesionalekin ere, irain eta adierazpen iraingarriak eta diskriminatzaileak ez onartzeko.

e) Haur eta nerabeek beren prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan parte hartze aktiboa izatea sustatzera.

f) Kirol erakundeen eta gurasoen edo tutoretza, zaintza edo harrera eginkizunak betetzen dituztenen arteko harremanak eta komunikazioa sustatzera eta sendotzera.

2. Era berean, 5. artikuluan aipatzen den prestakuntzaz gain, erakunde horietan lan egiten dutenek berariazko prestakuntza jaso beharko dute desgaitasunen bat duten haur eta nerabeen gaitasun eta ahalmen desberdinak behar bezala artatzeko, horien kirol inklusiboa sustatzeko eta garatzeko.”

Adingabeak indarkeriatik erabat babesteak zuzenean eragiten die Espainiako Konstituzioko 15. artikuluan aitortutako oinarritzko eskubideei. Honela dio artikulua horrek: "Guztiak dute bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta ezin zaie, inola ere, torturarik eta zigor edo tratu krudel edo apalgarririk jasanarazi. Heriotza zigorra

indargabetuta geratuko da, zigor lege militarrek gerra garaietarako xedatu dezaketenaren kasuan izan ezik.”

HELBURUAK ETA PRINTZIOAK.

Protokolo hau helburu eta printzipio hauek betetzeko egin da:

- Ingurune seguruak sortzea, adingabeek kirol jarduera garatu ahal izan dezaten adingabeen osotasun fisikoa, psikikoa eta morala zaindu eta babestuko dituen ingurune batean.
- Jarduera haien eskubideak eta duintasuna errespetatuz eta haien garapen osoa bermatuz egin behar da.
- Adingabeekin egiten diren ekintza guztietan, lehenetsua eman beharko zaio haurren interes gorenari beste guztien gainetik.
- Dibertsitatea errespetatzea. Inolako arrazoiengatik ez diskriminatzea.
- Ezarritako neurrien ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa bermatuko dituen antolaketa egitura bat eraikitzea.
- Inplikaturako eragileentzako prestakuntza planak egitea.
- Haurren prebentzio eta babes arloan protokoloak eta prozedurak prestatzea.
- Adingabeen eskubideei buruzko sentsibilizazioa eta kontzientziaketa sustatzea.
- Adingabeek entzunak izateko duten eskubidea. Adingabeen parte hartzea sustatzea eta bermatzea.
- Prebentzioa nagusitzea. Prebentzioa da indarkeria saihesteko modurik onena.
- Konfidentzialtasuna. Jarduketa guztiak inplikaturako alderdien konfidentzialtasuna ahalik eta gehien babesteko printzipioarekin egingo dira.

DEFINIZIOAK.

SEXU ABUSUA

Sexu abusua kontaktu fisikoarekin edo kontaktu fisikorik gabe izan daiteke. Tratu txar fisikotzat jo daitezke, besteak beste, honako ekintza hauek:

- Kontaktu fisikorik gabe:
 - Hitzezko sedukzio esplizitua.
 - Adingabeen aurrean masturbazioak egitea edo sexu harremanak izatea, begiratzen ari direla jakinda.
 - Sexu organoak erakustea, sexu plazera lortzeko
 - Iruzkin, begirada eta keinu lizunak.
 - Eduki sexuala duten irudiak grabatu, igorri eta/edo partekatzea.
- Kontaktu fisikoarekin:
 - Sexu isekak.
 - Berariaz ukitzea, sexu plazera lortzeko.
 - Aho sexua.
 - Uzko eta/edo baginako sarketa.
 - Adingabea sexu gogobetetasuneko objektu gisa erabiltzen den edozein egoera.

TRATU TXAR FISIKOA

Tratu txar fisikotzat jo daitezke, besteak beste, honako ekintza hauek:

- Adingabe baten aurka indarkeria fisikoa erabiltzea, kaltea eta/edo lesioa eraginez.
- Kalte fisikoa eragiten duten zigorrak.
- Lesioekin lehiaketetan parte hartzera behartzea.
- Substantzia dopatzaileak erabiltzea.
- Gaintrenamenduak.

- Ariketa behartuak eginaraztea zigor moduan.

TRATU TXAR EMOZIONALA

Tratu txar emozionaltzat jo daitezke, besteak beste, honako ekintza hauek:

- Behin eta berriz egindako kritikak, irainak, larderiak eta/edo isekak.
- Hitzezko indarkeria eta/edo oldarkortasuna.
- Kirol itxaropenek eragindako gehiegizko presioa.
- Nahita eta justifikatutako arrazoirik gabe baztertzea edo taldeko joko edo jardueretatik kanpo uztea.
- Edozein mehatxu mota.

JAZARPENA

Jazarpentzat jo daitezke, besteak beste, honako ekintza hauek:

- Nahi ez den sexu izaerako edozein portaera (hitzezkoa, hitzik gabekoa edo fisikoa).
- Pertsona baten edo batzuen eraso edo larderia jokabide luzeak.

Jazarpena modu pertsonalean, hau da, aurrez aurre edo teknologia berrien bidez (sare sozialak, WhatsApp, etab.) egin daiteke.

ZABARKERIA

Indarkeria mota horretan, ardura duten pertsonak adingabea ez dute behar bezala zaintzen edo ez diote behar den arreta eskaintzen. Adingabearen oinarritzko beharrian fisikoak eta psikologikoak ez asetzea da.

BULLYING-A

Gazte eta haurren artean behin eta berriz gertatzen diren eta biktimari kalte fisikoa, emozionala, soziala edo hezitzailea eragiten dioten portaera oldarkor fisiko, hitzezko edo psikologikoak dira.

Konplizetzat hartzen dira indarkeria egoera baten berri izanik, egoera aldatzeko ezer egiten ez dutenak.

ZIBERBULLYING-A

Bullyinga egiteko Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzea, esaterako, mezuen, sare sozialen, telefono mugikorraren, argazkien edo bideoen bidez.

GROOMING-A

adingabearen konfiantza lortzeko eta, ondoren, haren aurka edozein motatako indarkeria erabiltzeko helburuarekin, heldu batek hasitako ekintza edo praktiken multzoa.

NORK BERE BURUARI EGINDAKO INDARKERIA

Nork bere buruari egindako indarkeriatzat jo daitezke, besteak beste, honako ekintza hauek:

- Suizidioa, suizidio saiakera eta ekintza suizidak.
- Nork bere burua zauritzea.
- Elikadura nahasmenduak.
- Nork bere buruari ezarritako gainentrenamendua.

TRATU ONA

HNIBLOko 1.3 artikuluan, honako hau jotzen da tratu ontzat:

“Lege honen ondorioetarako, tratu ona da haur eta nerabeen oinarrizko eskubideak errespetatuz printzipio hauek aktiboki sustatzen dituenak: elkarrenganako errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetzaren demokratikoa, gatazken konponbide baketsua, legearen babes bera izateko eskubidea, aukera berdintasuna eta haurrak eta nerabeak diskriminatzeko debekua” .

INGURUNE SEGURUAK

Ingurune honetan haurren eskubideak errespetatzen dira eta babes fisiko, psikologiko eta soziala sustatzen da (Gómez-Díaz eta García Rodríguez, 2020).

PREBENTZIO NEURRIAK.

HFFk prebentzio neurri hauek ezarriko ditu:

- Babes ordezkari bat eta babes batzorde bat izendatuko dira.
- Araudi espezifikoaren ezartzea inplikaturako eragile guztientzat.
- Protokoloak prestatzea.

Arestian aipaturako prebentzio neurrien kalterik gabe, HFEk egokituz jotzen dituen prebentzio neurri osagarri guztiak garatuko ditu.

Babes ordezkaria.

Babes ordezkariaren betebeharrak eta erantzukizunak honako hauek izango dira:

- Sexu delituen ziurtagiri negatiboa izatea.
- Haur eta nerabeen babes arloan prestakuntza egokia izatea.

- Adingabeak babesteko estrategia gidatzea, haien ezarpen, monitorizazio eta eguneratze egokia ziurtatuz.
- Zerbitzu publiko, agintari eskudun eta erakunde guztiekin harremanak izatea.
- Inplikaturako profesional guztiei laguntzea, aholku ematea eta haiek prestatzea.
- Ezarritako protokoloak zabaltea eta betetzen direla zaintzea.
- Ongizatearen eta babesaren arloan dituzten kezkak adierazteko bertaratzen diren haur eta nerabeei arreta ematea.
- Adingabeen osotasuna arriskuan jartzen duten jokabide kodeak betetzen ez direnean organo eskudunari jakinaraztea.
- Haurren Babes Batzordeko kide izatea.

Haurren Babes Batzordea.

Adingabearen babes batzordeak aholkularitza eta laguntza emango dizkio babes ordezariari. Ordezariarekin batera, urteko jarduera txostenak egingo dituzte. Txosten horietan esku hartzeko prozesuak jasoko dira. Era berean, batzordea hiru hilean behin bilduko da ohiko bilkuran, prebentzio, jarduketa eta jarraipen politiken balorazioa eta jarraipena egiteko.

Batzordea honako hauek osatuko dute: Zuzendaritza Batzordeko kide batek, haurrak babesteko ordezariak eta gutxienez bi langilek.

Langileak eta boluntarioak kontratatzea.

HFEk bermatu egin behar du adingabeekin kontaktuan dauden langileak hautatzeko prozesuak honako parametro hauen arabera egingo direla:

Adingabeekin harremanetan dauden langile guztiek sexu delituen ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatu beharko dute.

Adingabeekin harremanetan egon daitezkeen langile guztiei elkarrizketak egingo zaizkie.

Kontratuetan haurren babesari buruzko klausula bat sartuko da.

Adingabeekin lan egiten duten langile eta/edo boluntario guztiek haurren babes arloko oinarrizko prestakuntza jasoko dute.

Adingabeekin lan egiten duten langile guztiek protokolo honetan ezarritakoarekin duten konpromisoa ezagutu eta sinatu beharko dute.

Adingabeekin lan egiten duten langile guztiek jokabide kodea sinatu beharko dute.

Jokabide kodeak

Jokabide kodeak arauak betetzeko mekanismoak dira, eta arau espezifikoak ezartzen dituzte kirol jardueretan parte hartzen duten subjektuentzat. Arau horien helburua da protokolo hau behar bezala aplikatzen eta HNIBLOn ezarritako helburuak lortzen laguntzea.

(1., 2. eta 3. eranskinak).

Jokabide jarraibide horiek nahitaez bete beharko dituzte Protokoloaren mendeko pertsona guztiek, eta horiek ez betetzeak dagozkion diziplina ekintzak eragin ditzake.

Jokabide kode espezifikoak ezartzea gomendatzen da langileentzat eta boluntarioentzat, senideentzat eta tutoreentzat eta adingabeentzat beraientzat.

Espazioen erabilera

Instalazioek adingabeen ongizaterako segurtasun neurriak betetzen dituztela ziurtatu behar da. Jardunbide egokien gomendioak ezarriko dira indarkeria egoerak gerta daitezkeen instalazioko eremu edo zonetan.

Harmailak eta ikusleak: Kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeko 6. artikuluan ezarritako

gomendioak. Komeni da artikulu horretan ezarritakoa harmailetan bertan argitaratzea, jendeak horren berri izan dezan.

Aldagelak: Aldagelak leku arriskutsuak dira eta, horregatik, honako prebentzio neurri hauek gomendatzen dira:

Debekatuta dago aldageletan irudiak eta/edo soinua hartzea.

8 urte baino gutxiago eta desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonak laguntzaile batekin sartu ahal izango dira. Adingabeen kasuan laguntzaileari dagokiona erabiliko dute.

Adingabeen talde eta multzoen kasuan, helduek ezin izango dute aldagela bera erabili. Hala ere, arduradunak aldagelak ikuskatu beharko ditu adingabeak sartu aurretik eta bertatik irten ondoren.

Indarkeria ekintzaren bat gertatzen ari dela susmatzen bada, helduen presentzia aldi baterako justifikatu ahal izango da. Kasu horietan, gutxienez bi pertsona helduk egingo dute ikuskapena, aldagelak erabiltzen ari diren adingabeen genero berekoak biak.

Fisioterapia gelak, biltegiak, bulegoak eta beste espazio osagarri batzuk: Espazio horietanez ingo da bakarka egon adingabeekin. Gutxienez bi heldu egon beharko dira.

Epaileak

Kasu askotan, epaile taldeko kideak adingabeak dira; horregatik, oso garrantzitsua da haientzat jarduera protokolo espezifikoak egitea.

Futbol zelaietako indarkeria errealitate eztabaida ezina da. Horregatik, indarkeria ezabatzea GFFren helburu nagusietako bat da. GFFk protokolo bat ezarri eta zabaldu du.

GFFk honako arrisku hauek ikusi ditu;

- Kasu askotan, epaile taldea pertsona helduek eta adingabeek osatzen dute. Espazioak partekatzen dituzte, esaterako, aldagelak, joan-etorrietako autoak, etab. Kasu horietan, berebiziko garrantzia ematen diogu adingabeak babesteko segurtasun neurriak ezartzeari. Aldagelak partekatzen badituzte, txandak antolatu behar dira adingabeentzat eta helduentzat. Ez dituzte aldagelak aldi berean partekatu behar. Automobil berean bidaiatzen badute, ahal izanez gero, adingabeekin beti bi pertsona heldu joango dira. Ezinezkoa bada, pertsona helduak bidaia ahalbidetu beharko die adingabearen legezko tutoreei. Kasu horietan, WhatsApp talde bat sortu beharko da inplikaturako pertsona, epaile eta adingabeen artean, eta babes ordezkaria ere sartu beharko da.
- Inoiz ez da sortuko adingabeekin heldu bakarra dagoen WhatsApp talderik.

Adingabeak dauden taldeetan egon beharko du beti babes ordezkariak. Adingabeekin ez da komunikazio pribaturik egingo.

- Futbol zelaietan hitzezko indarkeria izanez gero, honako neurri hauek hartzea gomendatzen da:
 - Epaileak partida geldituko du eta zelaiko ordezkariari jakinaraziko dio indarkeria egon dela. Ordezkariak, zelaiko megafoniaren bidez edo zuzenean, jarrera aldatzeko ohartaraziko die egileei.
 - Indarkeriak jarraitzen badu, epaileak partida aldi baterako etengo du eta taldeak aldageletara bidaliko ditu. Mezua errepikatuko da megafoniaz.
 - Egintzen egileak ezin badira kanporatu, edo beste ikusle batzuek antzeko egintzak errepikatzen badituzte aipaturako neurriak aplikatu ondoren, epaileak partida behin betiko geldiaraztea erabakiko du.

Bidaiak

Bidaien kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek baimena eman beharko dute joan-etorria egiteko. **(4. eranskina)**. Bidaia programa bat ezarri beharko da, irteerako eta itzulerako ordutegi zehatzak, ibilbideak eta ostatua barne hartuko dituen. Aldez aurretik, adingabeen babesaren eta ongizatearen arduraduna nor den jakinaraziko da eta haien kontaktua guztien artean zabalduko da. Adingabeen pribatutasun uneak errespetatuko dira.

Sare sozialak eta adingabeekiko komunikazioak

Funtsezkoa da Internet eta sare sozialak arduraz erabiltzea, adingabeak kontzientziatuz bitarteko horietan dauden arriskuez eta adingabeekin lan egiten duten pertsona helduak erne jarritz.

Ezin izango da ez bideorik eta ez argazkirik argitaratu inplikatu baimenik gabe. **(5. eranskina)**. Gurasoen edo legezko tutoreen idatzizko baimena beharko da irudiak klubeko sare sozialetan erabiltzeko. Edozein lehiaketa eta/edo entrenamendu grabatuz gero, adingabeei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi beharko zaie. Ezin da argazkirik eta bideorik egin aldageletan, komunetan edo geletan. Webgunean edo sare sozialetan argitaratutako irudiek ezin dute adingabe baten identifikazioa bideratzen duen datu pertsonalik eman. Adingabeei ezin izango zaie argazkirik egin modu iraingarrian edo jarrera probokatzailean.

Komunikazioak helduen, gurasoen edo legezko tutoreen bidez egin behar dira. Kideen artean adingabeak dituzten WhatsAppeko taldeak badaude, talde horietan talde teknikoko kide bat eta babes ordezkaria ere egongo dira.

Inola ere ezin izango da adingabeekin zuzenean harremanetan jarri kluberako edo talderako fitxatzeko. Komunikazio hori legezko tutoreekin egin behar da.

Beharrezkoa da Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eta sare sozialak egoki erabiltzeko gidak egotea. Garrantzitsua da horren ardura duten pertsonak beren

lana adingabeei dagokienez nola egin jakitea.

Arriskuen analisia

Babes ordezkariak eta adingabea eta nerabea babesteko batzordeak arriskuen ebaluazioa egingo du denboraldi bakoitzean eta aldiro-aldiro edo indarkeria kasu bat gertatzen den bakoitzean, bete beharreko premiak identifikatzeko eta arlo horretan hartu beharreko neurriak ezartzeko aukera emango duena.

Arriskuen ebaluazioak aukera ematen du adingabeek kirola egitean izan dezaketen kaltea ebaluatzeko kirol esparru guztietan. Etorkizunean sor daitezkeen arriskuak arintzen ere lagunduko du horrek.

Babes ordezkariak eta babes batzordeak bilerak antolatuko dituzte adingabeekin lan egiten duten arlo guztietako langile lan kontratadunekin, hartutako babes neurriak gainbegiratzeko eta bermatzeko.

Arrisku analisia egiteko urratsak:

1. Adingabeek izan ditzaketen arriskuak identifikatzea.
2. Arriskuaren probabilitatea eta larritasuna balioestea.
3. Arriskuak kategoriatan sailkatzea (txikia, ertaina eta handia).
4. Arrisku bakoitzerako prebentzio neurri bat ezartzea.
5. Ezarritako prebentzio neurriaren eraginkortasuna neurtzeko adierazlea ezartzea.
6. Adierazlea neurtu eta gainbegiratzeko arduradun bat izendatzea.

Prestakuntza

Adingabeekin ohiko harremana duten profesionalei prestakuntza espezifikoa, espezializatua, hasierakoa eta jarraitua emango zaie.

Adingabeekin harremanetan dauden profesionalek eta boluntarioek hasierako prestakuntza jaso beharko dute haurren eskubideei buruz, eraso eta tratatu txarreko egoeren prebentzioari buruz eta dokumentu honetan aurreikusitako neurriei, protokoloari eta jarduteko prozedurei buruz.

JARDUKETAK ETA KASUAK EBAZTEA

Adingabe baten aurkako indarkeria egoera bat edo zantzuren bat detektatzen edo pairatzen duen edonork egoeraren berri eman behar du. Babes ordezkaritari egoeraren berri emango zaio. Haurrak babesteko ordezkariek haurren batzordearekin biltzeko deialdia egingo du, gehienez ere 3 laneguneko epean. Gertaerak delitu izan badaitezke, segurtasun indar eta kidegoei jakinaraziko zaie ahalik eta azkarren.

Klubek edozein indarkeria kasuren aurrean jarduteko protokoloa aplikatu beharko dute. Babes ordezkaria arduratuko da prozedura oro aktibatzeaz, baina une oro adingabearen babes batzordea berarekin egongo da une oro. Pertsona horiek prebentzio eta jakinarazpen agenteak izango dira.

Indarkeria kasuak ahoz edo posta elektronikoz (klubak izendatutako posta elektronikoa) edo idatziz (**6. eranskina**) jakinarazi ahal izango dira. Horretarako, babes ordezkariekin harremanetan jarriko da eta hark une oro bermatuko du emandako datu guztien konfidentzialtasuna. Balizko arrisku egoera baten aurrean, berehala aktibatuko dira ezarritako kautelazko neurriak balizko egoeraren eragina murrizteko.

Egoera familia barrukoa ez bada, legezko tutoreei jakinaraziko zaie eta kasuaren deribazioaren eta egin beharreko urratsen berri emango zaie, babeska emanaz eta Kluba une oro laguntzeko prest dagoela erakutsiz.

Klubek beren jardura eremuan gertatzen den indarkeriazko edo jazarpenerako edozein gertaera ikertu beharko dute, adingabeen gainean egiten dela susmatzen denean. Gertakarien berri ematen denetik gehienez ere 10 laneguneko epean bildu beharko da informazioa. Behar izanez gero, beste 5 lanegunetz luzatu ahal izango da epea.

Informazio bilketa amaitu ondoren, haurren batzordeak gehienez 5 laneguneko epea izango du kasua ebazteko.

Kasuan nahasita dauden alderdiei ebazpenaren berri eman beharko zaie gehienez ere 3 laneguneko epean.

Jakinarazpenen erregistro bat beharko da, jakinarazpenen datu guztiak jasoko dituen. Informazioa txosten batean jasoko da, eta dagokion erakundeari jakinaraziko zaio. Ordezkarria eta batzordea ez dira ikerketa egiteaz arduratzen, baina bai ahal duten informazio guztia biltzeaz eta dagokien organoei emateaz.

Jakinarazpena ixten bada, itxiera txosten bat egingo da, gertakariak jasota uzteko.

Telefono interesgarriak **(7. eranskina)**.

POLITIKEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ezarritako politika eta protokoloen jarraipena eta balorazioa egin beharko da, ezarri eta betetzen direla egiaztatzeko. Protokoloa aktibatzen denean aldi behingo berrikuspena egiteaz gain, etorkizunean egoera horiek prebenitzeko zer neurri edo aldaketa egin daitezkeen jakiteko ere berrikusiko da.

1. eranskina

LANGILE ETA BOLUNTARIOEN JOKABIDE KODEA

Kirol erakunde bateko kide diren pertsona guztiak zeregin garrantzitsua dute kirolarien kirol eta gizarte garapenean. Horregatik, pertsona guztientzako kirol ingurune babesle, seguru, positibo eta inklusiboa sortzeko erantzukizuna dute. Garrantzitsua da teknikariek eta medikuek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, familiek, boluntarioek eta futbolarekin lotutako jarduera edo programetan parte hartzen duten pertsona guztiak kirolarien eskubideak eta ongizatea errespetatzea. Jokabide Kodea sinatzea nahitaezkoa da eta jokabide estandar horietako bakoitza errespetatzeko konpromisoa dakar, honako printzipio hauetan oinarrituta: lehia, konfiantza, errespetua, justizia, babesa, osotasuna eta erantzukizuna.

_____ Klubeko langile edo boluntario naizen aldetik, honako konpromiso hauek hartzen ditut:

- Kirolarien ongizateari eta segurtasunari lehentasuna emateko kirol emaitzen gainerik.
- Adingabearen babesari buruzko oinarritzko prestakuntza jasotzeko.
- Kirolari bakoitzaren duintasuna eta eskubideak errespetatzeko eta inor ez diskriminatzeko sexu, adin, arraza, azal kolore, etnia, jatorri, hizkuntza, erlijio, ideologia, desgaitasun, identitate edo sexu joeragatik.
- Nire ardurapeko kirolariek berdin baloratzen ditudala eta faboritismorik ez dudala sustatzen sentitzen dutela ziurtatzeko.
- Kirolarien bizitza pribatua errespetatzeko, kirol jardueratik kanpoko gaietan muturra sartu gabe.
- Babes ordezkaritari jardunbide txarraren, indarkeriaren edo abusuaren inguruan sortzen zaidan edozein zalantzaren berri emateko. Ezer ez egitea ez da aukera bat.

- Kirolariek edo haien familiek jardunbide txarrari, indarkeriari edo abusuari buruz jakinarazten didaten edozein zalantza entzuteko eta babes ordezkariari jakinarazteko.
- Eredu izateko eta kiroltasunez jokatzeko (epaile estamentuaren erabakiak errespetatzea barne); alkoholik ez edateko eta drogarik ez kontsumitzeko; substantzia dopatzailerik ez kontsumitzeko; hitz itsusirik ez esateko eta iruzkin sexista, arrazista, homofobo, lesbofobo, transfobo edo diskriminatzailezik ez egiteko.
- Nire konfiantzazko jarrera errespetatzeko, kirolariek muga egokiak mantentzeko eta kirolariekiko dudan konfiantzazko eta boterezko jarreraren erabilera txarrik ez egiteko.
- Lanerako giro eta espazio irekia sortzeko eta, ahal den heinean, kirolariekiko bakarka ez egiteko.
- 18 urtetik beherakoentzat programatutako jarduerak hasi baino behar adina denbora lehenago iristeko, beharrezko babes neurriak hartu direla ziurtatzeko.
- Kirolarien segurtasuna bermatzeko, jarduerak behar bezala gainbegiratu eta entrenamendu teknika eta metodo positibo eta seguruak aplikatu.
- Bullying-ik ez egiteko eta kirolariekiko edo kirolarien arteko edozein bullying motaren aurka jarduteko.
- Modu eraikitzailean komunikatzeko, adin bakoitzera egokituta eta inor umiliatu gabe.
- Kirolariei aukerak eskaintzeko erabakiak hartzen parte har dezaten.
- Eraginpeko pertsonen baimenik gabe informazio konfidentzialik ez dela zabalduko ziurtatzeko, baldin eta agintari eskudunen berariazko agindurik ez badago.

Konpromisoa hartzen dut eta hitz ematen dut:

- Ez dudala parte hartuko ahozko probokazio edo probokazio fisiko edo sexuala duen jokoetan eta kirolariekiko kontaktu desegokia egitea (ipurmasailak, genitalak, bularrak) eskatzen duten jokoetan. Ez ditudala joko horiek baimenduko.
- Ez ditudala kirolari adingabeak nire ibilgailu pribatuan eramango gurasoen edo tutoreen baimenik gabe, larrialdi egoera batean izan ezik. Kasu horretan, erakundearen zuzendaritza teknikoaren arduradunari edo zuzendaritza taldeko norbaiti jakinaraziko diot.
- Ez naizela kirolari adingabeekin espazio itxietan bakarka geratuko baimenik gabe.
- Ez dudala inolako sexu harremanik izango kirolari adingabe batekin eta ez dudala sexu izaerako proposamen edo iruzkinik egingo.
- Ez dudala konnotazio sexualak dituen hitzik gabeko hizkera erabiliko (begirada lizunak, txistuak, etab.).
- Ez dudala lotura emozionalik ezarriko adingabe batekin neure onurarako.
- Ez dudala jokalaria bat presionatu, beldurtu edo umiliatuko kontrolatzeko xedez.
- Ez dudala argazkirik egingo aldageletan, ez arroparekin eta ez arroparik gabe, eta ez diodala beste inori egiten utziko.
- Ez ditudala telefonoa eta sare sozialak modu desegokian erabiliko: eduki pornografikoak partekatzea; adingabe batekin elkarrizketa pribatuak izatea; kirolarien ongizatea kaltetu edo arriskuan jar dezaketen iruzkinak idaztea, etab.

Jokabide kode hori betetzen ez bada, behar diren neurriak hartuko dira. Ikerketa bat egiten den bitartean, aldi batez jardueratik edo ekitalditik kanpo uztea izan daiteke neurri horietako bat, eta diziplina edo lege ekintzak ere ekar ditzake.

Nik,..... (Izen-abizenak) onartzen dut Jokabide Kode hau betetzea.

Kargua:

Data:

Sinadura:

Klubeko lekukoaren izen-abizenak:

Kargua:

Data:

Sinadura:

2. eranskina

KIROLARI ADINGABEEN JOKABIDE KODEA

Garrantzitsua da kirolariek konpromisoak hartzea lankide, teknikari, mediku eta kirol erakundearen jarduerari lotutako gainerako pertsonetikiko bizikidetzari buruz. Jokabide Kodea arretaz azaldu beharko da, gogoeta sustatuz eta bertan jasotako jokabide guztiak ulertzen dituztela ziurtatuz. Saio hori helduek gidatu behar dute, eta kezkatzen dituen edozein gairen berri emateak duen garrantzia nabarmendu beharko dute. Saioa amaitutakoan, gainerako kirolariek bezala, haur bakoitzak dokumentua sinatuko du.

Futboleko jokatzeko ari naizenerako konpromiso hauek hartzen ditut:

- Instalazioak eta/edo materiala errespetatzeko eta ez kaltetzeko, eta nire kirola egiteko esleitutako lekuetatik ez irteteko.
- Kirol instalazioetatik ez alde egiteko nire entrenatzaileari edo erakundeko arduradun heldu bati jakinarazi gabe.
- Entrenamendura nire kirola egiteko beharrezko materialarekin eta arropa egokiarekin joateko.
- Aldageletan jokabide arauak errespetatzeko.
- Jokabide Kodeari edo instalazioaren erabilera arauari buruz zalantzaren bat sortzen bazait, nire entrenatzailearengana, babes ordezkariarengana edo instalazioaren arduradunarengana joateko.
- Instalazioetan ez erretzeko, alkoholik ez edateko eta drogarik ez kontsumitzeko.

- Inolako substantzia dopatzailerik ez kontsumitzeko.
- Nire entrenatzailea eta nire taldekideak errespetatzeko.
- Joko garbia sustatzeko eta garaipenen nahiz porroten aurrean kirol portaera izateko.
- Nire aurkariak eta arbitroak (edo epaileak) agurtzeko.
- Epailearen erabaki oro kiroltasunez eta errespetuz onartzeko. Haren erabakiei buruzko zalantzak nire entrenatzaileari azalduko dizkiot.
- Entrenamenduetan, lehiaketan eta nire kirol jarduerarekin zerikusia duen beste edozein ekitalditan puntualtasuna bermatzeko. Atzeratzen banaiz, garaiz abisatuko diot entrenatzaileari.
- Nire entrenatzaileari kirol jardueraren aurretik edo kirol jarduerak irauten duen bitartean izaten dudan lesio edo egoera mediko oro jakinarazteko.
- Bullying-a ez egiteko:
 - Sexu, arraza, erlijio, identitate, sexu orientazio edo kirol trebetasunagatik norbait berariaz diskriminatuz.
 - Sare sozialak modu desegokian erabiliz, adibidez, iruzkin edo argazki desegokiak argitaratuz (Instagramen, Facebooken, Snapchaten, Twitterren, etab.) norbaiti min egiteko edo gaizki sentiarazteko.
 - Norbait irainduz edo umiliatuz.

- Fisikoki edo emozionalki, beste pertsona batzuen aurka borrokatuz edo haiei kalte eginez.
- Babes ordezkaritari edo heldu bati jakinaraztea bullying-a egiten didatela edo norbaiti bullying-a egiten ikusi dudala.
- Sexu jazarpenik eta abusurik ez egitea. Babes ordezkaritari edo heldu bati jakinaraziko diot sexu jazarpena edo abusua egin badidate edo norbaitek sexu jazarpena edo abusua jasan duela ikusi badut.

Futboleko jokatzeko ari naizenean, eskubidea dut:

- Nire kirol trebetasunez gozatzeko eta haiek garatzeko.
- Ingurune seguru, zoriontsu eta baloratu batean sentitzeko, nire taldekideen neurri berean. Sexu, arraza, erlijio, identitate, sexu orientazio edo kirol trebetasunagatik judizio eta diskriminaziorik ez jasateko.
- Nire kirol jardunari, helburuei eta metodologiei buruzko erabakiak hartzen parte hartzea.
- Pertsona helduek edo beste kirolari batzuek egin eta gaizki edo triste sentiarazten nauten jokabide txarretatik babesteko.
- Hitz egiteko eta besteek nik esandakoa entzuteko, bereziki kezka baditut edo seguru sentitzen ez banaiz.
- Beldur edo kezka egoeran banago, laguntza non edo nola eskatu edo norekin hitz egin dezakedan jakiteko.

- Arazoren baten berri emanez gero, ondorio txarrik ez jasateko.
- Istripua edo lesioa izanez gero, artatua izateko.
- Kirol jarduna nik erabakitzen dudanean uzteko.

Jokabide Kode hau sinatzean hartutako konpromisoak ez betetzeak berehalako ondorioak izango ditu eta, larritasunaren arabera, jarduera etetea edo erakundearekiko harremana etetea ekar dezake.

Nik,..... (Izen-abizenak) konpromisoa hartzen dut Jokabide Kode honen arabera jokatzeko.

Data:

Sinadura:

Klubeko lekukoaren izen-abizenak:

Kargua:

Data:

Sinadura

3. eranskina

FAMILIEN ETA LEGEZKO TUTOREEN JOKABIDE KODEA

Kirol erakunde bateko kide diren pertsona guztiek zeregin garrantzitsua dute kirolarien kirol eta gizarte garapenean. Horregatik, pertsona guztientzako kirol ingurune babesle, seguru, positibo eta inklusiboa sortzeko erantzukizuna dute.

Gurasoek edo adingabeen eta gazteen legezko tutoretzaz arduratzen diren pertsonak kirol arloan balio positiboaren garapena bultzatzeko jokabide egokia erakutsiz.

Jokabide Kodea sinatzea nahitaezkoa da eta jokabide estandar horietako bakoitza errespetatzeko konpromisoa dakar, honako printzipio hauetan oinarrituta: lehia, konfiantza, errespetua, justizia, babesa, osotasuna eta erantzukizuna. Jokabide desegokiak kirol instalazioetatik kanporatzea ekar dezakete.

Aita, ama edo tutore arduraduna naizen aldetik, konpromiso hauek hartzen ditut:

- Erakundearen Jokabide Kodeak, erregelamenduak, protokoloak eta kirol instalazioaren arauak errespetatzeko.
- Nire seme-alabak kirola egitera animatzeko, arauak eta pertsonak errespetatuz; eta gauzak ahalik eta ondoen egiten irakasteko, dituzten gaitasunen arabera.
- Bere kirola egiteko beharrezko materialarekin eta arropa egokia izan dezan bermatzeko.

- Nire semea/alaba entrenamenduetara eta/edo lehiaketetara garaiz iristen dela ziurtatzeko. Atzeratzen bada, konpromisoa hartzen dut entrenatzaileari behar adina denbora lehenago jakinarazteko.
- Nire semeak edo alabak kirolarien Jokabide Kodea ezagutu eta ulertzen duela ziurtatzeko, errespetatu egin behar baitu.
- Jarduera antolatzeaz arduratzen diren langile guztiekin lankidetzan aritzea eta bertan parte hartzen duten pertsona guztiak errespetatzea (estamentu teknikoak, arbitroen estamentua, boluntarioak, aurkariak, beste kirolari batzuk, etab.).
- Errealista izatea eta nire semea edo alaba ez presionatzea edo itxaropen faltsurik ez sortzea.
- Haien ahaleginak eta parte hartzea goraiatzea, errendimenduan eta emaitzetan zentratu gabe.
- Talde teknikoak hartutako erabakiak onartzea, harmailetan arduraz eta modu positiboan jokatzeko, eta hitzezko oldarkortasunik edo oldarkortasun fisikorik ez erakustea.
- 18 urtetik beherako pertsonak agertzen diren argazki edo bideorik ez ateratzea.
- Sare sozialak modu desegokian ez erabiltzea (norbaiti min egin diezaioketen edo jarduera antolatzeko ardura duen federazioa edo kluba estatusunean jartzen duten iruzkinak argitaratzea barne).
- Talde teknikoari nire semeak edo alabak izan duen osasun arazo ororen berri

- Babes ordezkariari jakinaraztea nire semea edo alaba edo beste edozein kirolari (adingabea edo heldua) babestearekin zerikusia duen zalantza edo susmo oro.
- Nire semeak edo alabak kirolean parte hartzeko eskatzen diren baimen inprimaki guztiak betetzea eta Klubari entregatzea.

Aita, ama edo tutore arduraduna naizen aldetik, eskubidea dut:

- Kirol erakundearen eta instalazioaren Jokabide Kodeak, babes politikak, protokoloak eta arauak behar duen guztietan ezagutu eta kontsultatzeko.
- Babes ordezkaria ezagutzeko eta haren harremanetarako datuak beti eskura izateko.
- Nire semearen edo alabaren ardura duten pertsonen eta haien ibilbide profesionalen buruzko informazioa jasotzeko.
- Nire semea/alaba edozein jardunbide txar, indarkeria edo abusuren aurka seguru eta babestuta dagoela jakiteko.
- Nire semearekin/alabekin zerikusia duen edozein arazo edo kezkaren berri izateko.
- Nire kezkak behar bezala artatzeko.

Jokabide Kode hau sinatzean hartutako konpromisoak ez betetzeak berehalako ondorioak izango ditu eta, larritasunaren arabera, entrenamenduetara edo lehiaketetara joateko baimena etetea ekar dezake.

Nik, (izen-abizenak) konpromisoa hartzen dut Jokabide Kode honen arabera jokatzeko.

Kirolariaren izen-abizenak:

Familia lotura:

Sinadura:

4. eranskina

BIDAIARAKO BAIMENA

_____jaunak/andreak,
_____zenbakiko NAN duenak, adingabearen

- Aitak
- Amak
- Legezko tutoreak

_____ adingabearen _____ izen-abizenari
_____ zenbakiko NAN duenari eta _____ Klubeko
(klubaren izena)_____saileko kide denari, baimena ematen dio gainerako
taldekideekin eta entrenatzaileekin _____ herrira joateko honako data
honetan:_____.

Eta jasota gera dadin sinatzen dut BAIMEN hau

_____(a)n , 20____(e)ko_____ren_(e)(a)n.

Gogoan izan adingabeak beti bidaiatu behar duela bere NANarekin eta osasun txartelarekin eta, hala badagokio, aseguru pribatua duela egiaztatzen duen dokumentuarekin.

Jakinazten dizugu, Datu Pertsonalak Babesteko DBEO (EB) 2016 eta 3/2018 DBLO betetzeko,_____Kluba dela datuen tratamenduaren arduraduna. Datu horiek, parte hartzaile adingabeek_____klubeko taldeetako kide gisa kirol ekitaldietara egin beharreko irteera eta haien aita/ama edo legezko tutorearen baimena arautzeko eta

kontrolatzeko erabiltzen dira, legezko interesaren legitimazioarekin eta berriazko baimenarekin jokatuz. Datuak ostatuak eta otorduak antolatzeko bakarrik lagatzen dira eta horiek ezabatzeko eskubidea egikaritzen ez den bitartean gordetzen dira. Halaber, jakinarazten dizugu _____ Klubeko bulegoetan edo _____ helbide elektronikoan datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo tratamendua mugatzeko eskubideak erabil ditzakezula. Informazio gehiagorako, _____ (e)an kontsulta dezakezu gure pribatutasun politika.

5. eranskina

Adingabeen irudi eskubideak erabiltzeko baimena

_____ jauna/andrea naiz, adin nagusikoa, NAN hau duena: _____, ETA ADIERAZTEN DUT ONDOREN AIPATZEN DEN ADINGABEAREN _____ (aita/ama/legezko tutorea) NAIZELA: _____, adingabea eta _____ zenbakiko NAN duena, _____ herrian jaioa, _____ ko _____ ren _____ (e)(a)n (AURRERANTZEAN, "adingabea"),

eta honen bidez, NIRE BERARIAZKO ADOSTASUNA ADIERAZTEN DUT ETA BAIMENA EMATEN DUT adingabearen irudi-eskubideak _____ ri (datuak tratatuko dituen arduradunaren edo enpresaren izena) lagatzeko, behar izanez gero erabili, argitaratu edo partekatu ahal izan ditzan.

Horrenbestez, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak araututako Espainiako Konstituzioko 18. artikulua araberako eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, xedatutakoaren araberako, emandako datuak _____ erakunde titularrenak izango dira (datu horiek tratatuko dituen arduradunaren edo enpresaren izena), ekitaldia, ikastaroa edo jarduera eta bezeroak kudeatzeko, eta haien ekitaldi, zerbitzu eta produktuen merkataritza eta sustapen informazioa bidaltzeko (beharren araberako aldatu).

Ulertu eta onartzen dut datuak/irudia _____ (e)k (osatu datu horiek tratatuko dituen arduradunaren edo enpresaren izenarekin) argitara ditzakeela enpresa horren komunikabide korporatiboetan (webgunea, sare sozialak...), lehen aipatutako helburuekin.

Era berean, onartzen dut datuak _____ (e)ko beste sozietate partaidetu batzuei jakinaraztea (osatu datu horiek tratatuko dituen arduradunaren edo enpresaren izenarekin) ekitaldia kudeatzeko.

Baimen horrek berekin dakar erabiltzaileak baimena ematea bere interesekoak izan daitezkeen sozietate edo enpresa laguntzaile horien bidez eskainitako zerbitzu eta produktuei buruzko informazioa jasotzeko. Datu pertsonalei dagokienez, dagozkion

eskubideak erabili ahal izango ditu idatziz eta/edo _____(posta elektronikoarekin osatu) helbidera NANaren fotokopia erantsita.

SINATUA:

_____ (sinatzen duen pertsonaren izena eta NAN)

Data: ___ko _____ren _____(e)(a)n

6. eranskina

GERTAKARIA JAKINARAZTEKO INPRIMAKIA			
ESKATZAILEA			
ERAGINPEKO PERTSONA BESTE BAT			
ESKATZAILEAREN DATUAK			
IZEN-ABIZENAK:			
IFZ:			
ROLA (kirolaria, teknikariak, etab.):			
TELEFONO ZENBAKIA:			
POSTA ELEKTRONIKOA:			
ERAGINPEKOAREN DATUAK			
IZEN-ABIZENAK:			
IFZ:			
ROLA (kirolaria, teknikariak, etab.):			
TELEFONO ZENBAKIA:			
POSTA ELEKTRONIKOA:			
* Pertsona adingabea bada eta indarkeria egoera familia barrukoa ez bada, adierazi legezko tutoretza duten pertsonen datuak.			
GERTAEREN DESKRIBAPENA (adierazi inplikaturako pertsonak eta ikusitako jokabideak, bai eta balizko lekukoak ere.).			
DATA:	ORDUA:	LEKUA:	SINADURA:

7. eranskina

Kontaktu interesgarriak.

Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua (GLFZ) – Telefono zenbakia: 943 11 21 11

Egunean 24 orduz funtzionatzen du, urteko egun guztietan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatzen diren gizarte larrialdiko egoerei berehalako arreta emateko.

Gizarte Larrialdietarako Donostiako Udal Zerbitzuarekin (GLUZ) – Telefono zenbakia: 943 48 38 49

Egunean 24 orduz funtzionatzen du, urteko egun guztietan, Donostian gertatzen diren gizarte larrialdiko egoerei berehalako arreta emateko.

“Zeuk esan” . Haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono zenbakia – Telefono zenbakia: 116 111

Europako Batasuneko Haur eta Nerabeei telefono bidez eta online Orientazioa, Aholkularitza eta Informazioa emateko Zerbitzua. Konfidentziala eta doakoa da.

Zure taldekoak gara – Telefono zenbakia: 688 67 10 00

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eta **Basque Team Fundazioak, Emakunderen** laguntzarekin, kirol arloko sexu jazarpen, sexu abusu eta sexuan oinarritutako kasuetarako informazio eta arreta zerbitzu espezializatu bat aurkeztu dute.

Donostiako udaltzaingoa – Telefono zenbakia: 092

Herritarren eskura jartzen den larrialdietarako telefono zenbakia, polizia arreta behar duten larrialdi egoerei erantzuteko.

Guardia Zibila – Telefono zenbakia: 062

Protección-menor@guardiacivil.org

Larrialdiak, Ertzaintza – Telefono zenbakia: 112

Espainiako Futbol Errege Federazioko adingabea babesteko ordezkaria.

- Patricia González García
- pggarcia@rfef.es

Gipuzkoako Futbol Federazioko adingabea babesteko ordezkaria.

- naiara@fgf-gff.org

Protokolo hau HONDARRIBIA F.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen 2024ko otsailaren 7ko bileran.

Halaber, bilera horretan onartu zen Javier Larreta Indurain izendatzea babes ordezkari eta HONDARRIBIA F.E.-ko Haur eta Nerabeen Babeserako Batzordeko kideak izendatzea. Honako hauek osatuko dute batzordea: Saioa Oronoz Markos, Leandro Maíllo Domínguez, Xabier Valencia Murua (Zuzendaritza Batzordeko ordezkaria) eta Javier Larreta Indurain babes-ordezkaria.

Erabaki horiek Zuzendaritza Batzordearen bilera horri dagokion aktan jasota daude.

Hondarribian, 2024ko otsailaren 8an.

